

BEZEROEKIKO HARREMANAK

- **Harreman motak**

Harreman motari dagokionez, konbinazio bat egitea erabaki dugu. Zerbitzu automatizatua aplikazioaren bidez izango dute gure bezeroek eta, beste aldetik, zerbitzu pertsonalizatua izango dute, edozein momentutan gurekin hitz egiteko aukera izango dute eta guk gure esku artean dagoen guztia egingo dugu haien zalantza edo arazoak konpondu ahal izateko. Gure bezeroak gustura egoteko, gure harremanak estutzen saiatuko gara eta horretarako pizgarri ezberdinak erabiliko ditugu: zerbitzuan eta lokaletan hobekuntzak egiten saiatuko gara bezeroen erosotasuna hobetzen joateko.

- **Bezeroak integratzen**

Lehen aipatu dugun bezala, gure bezeroekin izango ditugun harremanetan hurbiltasuna bilatzen dugu eta horregatik gure arteko “konfiantza” aprobetxatuz, aholkuak eskatuko dizkiegu. Haientzat eta heltzen joango diren bezero berrientzat zein hobekuntza nahi izango zituzten edo zer aldaketa behar ditugun jakinaraztea eskatuko diegu. Aholku horien bidez, bezeroek jasoko duten zerbitzua hobetzen joango da eta gure proiektuaren kalitatea ere.

